

# GOMIGINAK

Aho eta hortzen higieneko hiru ikasle gara, eta ahalik eta etekinik handiena atera nahi izan diegu ditugun ezagutzei. Gure funtzio nagusia klinika batean ahoko gaixotasunak prebenitzea da, hori dela eta, mundu mailan haurrei gehien eragiten dien gaixotasunetako bat tratatzea erabaki dugu; txantxarra, baina modu berezi batean.

Badakigu txantxarra sortzeko arrazoi nagusietako bat azukre askoko elikagaiak direla, gominolak kasu. Baina... zein umeri ez zaizkio gominolak gustatzen? Horregatik, haien formula hobetzea erabaki dugu, eta txantxarra prebenitzen lagunduko duten gominola batzuk sortzea!

